OT-001-2016

**Gaia:** Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

**Asunto:** Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: 67
Nork aurkeztu du: Trapagarango Udala

Aurkezpen data: 2022/02/10

Sugerencia Nº: 67
Presentada por:
Ayuntamiento del Valle de Trapaga
Fecha de presentación: 10/02/2022

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Informazio modura, udalerriko indarreko HAPOan idatzizko dokumentazioa eta dokumentazio grafikoa dago, eta 2006an onetsitako LPParen eta HAPOaren arteko desadostasun garrantzitsuenak aztertzen dira.

2. Bilbo-Muskiz RENFEko C-2 aldiriko linean erabilera-gaitasuna hobetzeko eta maiztasuna gehitzeko proposamena zehazten da. Helburua da garraio publikoan Meatzaldera egoiliarren eta langileen irisgarritasuna hobetzea.

   Gainera, proposamenari esker, autoarekiko mugikortasuna gutxitzen lagunduko litzaieke, bereziki, Ezkerraldea-Meatzaldeko Parke Teknologikoko erabiltzaileei.

3. Plataforma Esklusiboko Garraio Kolektiboari (PEGK) dagokionez, LPPean balizko kontraesan bat antzematen da Trapagarango hirigunean proposatzen den trazadura zehazteko orduan (iradokizuna edo loteslea). Lotesle bada, eskatzen da trazadurak HAPOan proposatutakoari jarraitzeko (Juan Sebastian Elcano kalea) eta ez N-634 errepidean (Maiatzaren Lehena etorbidea) zehar joateko. Gainera, aurretik Barakaldoko biribilgunea gauzatua egotearen mendekoa izan beharko luke.

4. Eskatzen da LPPean Ortuella-Trapagaran erdi-saihesbidearen proposamena sartzeko, HAPOak zehazten duenaren ildotik, Trapagarango hirigunetik trafiko astuna kentzeko.

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. A modo informativo, se hace referencia a la existencia de documentación gráfica y escrita en el PGOU vigente del municipio en la que se analizan las discrepancias más importantes que existían entre el PTP aprobado en 2006 y el PGOU.

2. Se detalla una propuesta de mejora de la capacidad de uso y aumento de la frecuencia de la línea de cercanías C-2 de RENFE entre Bilbao y Muskiz, con el fin de mejorar la accesibilidad en trasporte público a la Zona Minera, tanto a residentes como a trabajadores.

   La propuesta, además, ayudaría a reducir la dependencia del automóvil especialmente a los usuarios del Parque Tecnológico de Ezkerraldea-Meatzaldea

3. En relación con el Transporte Colectivo en Plataforma Exclusiva (TCPE), se apunta una posible contradicción del PTP en el grado de determinación (sugerencia o vinculante) del trazado propuesto por el núcleo urbano de Trapagaran. En caso de ser vinculante, se solicita que dicho eje discurra según el trazado propuesto en el PGOU (c/ Juan Sebastián Elcano) y no por la N-634 (avenida 1º de mayo) y que se condicione su ejecución a la previa existencia de la Ronda de Barakaldo.

4. Se solicita que en el PTP se incluya la propuesta de semivariante Ortuella-Trapagaran, tal y como queda recogida en el PGOU, con el objeto de eliminar el tráfico pesado a través del núcleo urbano de Trapagaran.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: RKHC-8JY1-PROI-OIN1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

5. Zenbait arrazoitan funtsatuta, proposatzen da LPPak indarreko HAPOaren bizitegiaren kuantifikazioa (1.285 etxebizitza) alde baloratzea, nahiz eta PPLaren aurreikuspenen gainetik gelditu, LAGen kalkulu-metodoa aplikatu baita.

6. Eskatzen da LPPak Ibarzaharrako 04, 06 eta 07 eremuetan uholde-arriskua duten orban eguneratuak jartzeko, uholde-arriskua salbatze aldera, betelanak dagoeneko eginak baitaude.

   Bestalde, eskatzen da LPPak egiten duen analisiaren barruan Trapagaran udalerritik pasatzean Granada ibaia berroneratu behar diren ibaien artean sartzeko, indarreko HAPOan ageri den bideratze-planaren arabera.

5. Se propone, alegando diversas razones, que el PTP valore favorablemente la cuantificación residencial del PGOU vigente, establecida en 1285 viviendas, pese a ser superior a las previsiones del PTP, obtenidas mediante la aplicación del método de cálculo de las DOT.

6. Se solicita que el PTP recoja las manchas de inundabilidad actualizadas en los ámbitos 04, 06 y 07 de Ibarzaharra, puesto que ya se han realizado los rellenos necesarios para salvar la inundabilidad.

   Por otra parte, se solicita que se incluya el río Granada a su paso por el municipio de Trapagaran dentro del análisis que hace el PTP de ríos con necesidad de recuperación, según el plan de encauzamiento incluido en el PGOU vigente.

## IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. Eskertzen da HAPOaren informazioari buruzko aipamena, LPPa ikuskatzeko erreferentziatzat hartuko baita.
2. Proposatutako hobekuntza mugikortasunaren arloan LPParen helburuekin bat dator eta, horregatik, LPPak berezko proposamentzat hartuko du. Praktikan jartzeari dagokionez, LPParen antolamendu-eremua gainditzen du, argi eta garbi arloko gaia baita. Horregatik, onetsi eta abian jartzeko RENFEn egin beharko dira izapideak, linearen operazio-konpainia delako.

3. PEGKrako Ibarzaharra-Trapaga-Ortuella ardatzaren proposamena LPPean iradokizun modura ageri da, eta eremu funtzionalak duen bilakaeraren arabera garatuko da, Meatzaldea Barakaldora eta Itsasadarraren aurrealdera hurbiltzeko. Ildo horri eutsiz, aurretiaz Barakaldoko biribilgunea egina egoteak koherentzia du, konektatzeko ezinbestekoa baita.

   Bestalde, LPPean zehazten da garraio-azpiegituren sareetan dauden tarteek *"eremuen arteko konexio-irizpidearen izaera dutela, eta dokumentazio grafikoan irudikatu arren, ez direla trazaduraren proposamen zehatzak"*, beraz, HAPOak egiten duen barne-ibilbidearen proposamena oso-osorik baliozkoa da salbuespen bakarraz: udalerri mugakideekin jarraipen-puntuak adostea.

## CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. Se agradece la referencia a la citada información del PGOU, que servirá de referencia para la revisión del PTP.
2. La mejora propuesta está en consonancia con los objetivos del PTP en materia de movilidad y, por ello, se recogerá como propuesta propia del PTP. En lo que respecta a su puesta en práctica, ésta excede del ámbito de ordenación del PTP, dado que se trata de una cuestión de marcado carácter sectorial. Por ello, su posible aprobación y puesta en marcha pasa por tramitarla ante RENFE, compañía operadora de esta línea.
3. La propuesta del eje Ibarzaharra-Trapaga-Ortuella para el TCPE se recoge en el PTP en calidad de sugerencia, a desarrollar en función de la evolución del área funcional, y como forma de acercamiento de la zona minera a Barakaldo y el frente de la Ría. En este sentido resulta coherente el considerar como condición previa la existencia de la Ronda de Barakaldo, con la cual conectaría.

   Por otra parte, en el PTP se especifica que los tramos recogidos en el mismo en las distintas redes de infraestructuras de transporte tienen carácter de *"criterio de conexión entre ámbitos, con una representación en la documentación gráfica que no presupone una propuesta concreta de trazado"*, por lo que la propuesta de recorrido interno realizada en el PGOU resulta plenamente válida, con la única condición de acordar los puntos de continuidad con

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: RKHC-8JY1-PROI-OIN1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

4. Iradokizunak aipatzen duen bezala, erdi-saihesbidearen proposamena ez dago arloko administrazio eskudunaren jarduketa-aurreikuspenetan. Oro har, LPPak defendatzen du iragate-trafikoak eta hiriguneetako barne-bideen bilbeak bereiztea. Ildo horretatik, planak jarduketa iradokizun modura hartuko du.

5. Eremu funtzionalean udalerrien bizitegi-kuantifikazioa LAGen prozedura orokorrera egokituko da, 13. artikuluari eta bere aplikazio-arauetako IV. eraikinari jarraikiz.

LPPa hasieran onesteko dokumentuan dauden kopuru zehatzak, oro har, 2018-2026 denboraldirako IV. eranskinean dagoen kuantifikazio-metodoa aplikatzearekin bat datoz, 2016ko EUSTATen datuak abiapuntutzat hartuta. Trapagaranek 1996-2016 denboraldian biztanleen % 7,1 galdu zuenez, bere bizitegi-gaitasuna bizitegi-parkearen % 10eko hazkuntza planteatzetik zehazten da.

Indarreko HAPOak ahalbidetzen duen bizitegi-kuantifikazioa LAGen kalkulu-metodoaren emaitza baino handiagoa izateak ez dakar arazorik. Plangintza 2/2006 Legeari egokitzen zaio, eta behin betiko 2015ean onetsi zen, beraz, eguneratuta dago eta gaur egun arloan aplikazioko indarreko arau-erreferentzia da. Etxebizitza-kopurua gauzatzeke dokumentuan aurrez ikusitakoa da. LPPak ez du berariaz aldeko baloraziorik egin behar.

LAGak onesteko 128/2019 Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrak aurrez ikusten du plan orokorrak indarreko lurralde-plangintzei egokitzea, erkidegoko hirigintza-legediarekin bat etorriz ikuskapen integralari eusten diotenean. Ikuskapen hori beharrezkoa ez den bitartean, eta behin betiko onestearen bitartez prozesua amaitu arte, egungo HAPOak eta haren zehazpenek indarrean jarraitzen dute.

Laburbilduz, Trapagarango indarreko HAPOa ikuskatzen hasten ez denera arte (ez dirudi epe ertainean egingo denik) etxebizitzaren beharrak ez dira berriz zehaztu beharko. Une

los municipios vecinos.

4. Como señala la sugerencia, la propuesta de semivariante no se recoge en las previsiones de actuación de la administración sectorial competente. Desde el PTP se defiende, con carácter general, desligar los tráficos de paso y las tramas viarias internas de los núcleos urbanos. En ese sentido el plan recogerá la actuación como sugerencia.

5. La cuantificación residencial de los municipios del área funcional debe ajustarse al procedimiento general previsto en las DOT, establecido en el artículo 13 y en el Anexo IV a sus Normas de Aplicación.

Las cifras concretas recogidas en el documento de aprobación inicial del PTP corresponden en general a la aplicación ilustrativa del método de cuantificación para el período 2018-2026 recogido en el citado Anexo IV, con datos del EUSTAT de 2016. Dado que Trapagaran perdió un 7,1 % de su población entre 1996 y 2016, su capacidad residencial viene determinada por la potestad de plantear un crecimiento del 10% de su parque residencial.

El hecho de que la cuantificación residencial posibilitada por el PGOU vigente sea superior al resultado del método de cálculo de las DOT no supone un problema. El planeamiento está adaptado a la Ley 2/2006 y aprobado definitivamente en 2015, por lo que está actualizado y en el momento actual es la referencia normativa vigente aplicable en esa materia. El número de viviendas pendientes de ejecución es el que está previsto en el documento, sin que haga falta que el PTP le otorgue una valoración expresa favorable.

La Disposición Transitoria Segunda del Decreto 128/2019 de aprobación de las DOT prevé la adaptación de los planes generales al planeamiento territorial vigente cuando inicien su revisión integral de conformidad con la legislación urbanística autonómica. Mientras esa revisión no resulte necesaria y hasta que no concluya el proceso con su aprobación definitiva, el actual PGOU y sus determinaciones continuarán vigentes.

En definitiva, hasta que no se inicie la revisión del PGOU vigente de Trapagaran, lo que no parece previsible a medio plazo, no habrá que volver a determinar sus necesidades de vivi-

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: RKHC-8JY1-PROI-OIN1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

horretan aplikatu beharko dira LAGen 13. artikulua eta IV eranskina.

enda. Será en ese momento cuando sea de aplicación la metodología del artículo 13 y el Anexo IV de las DOT.

Testuinguru honetan, erantzun honek ez ditu iradokizunean azaldutako udal-argudioak baloratuko, indarreko HAPOa izapidetu zenean arrazoitu eta onartu zirelakoan.

En este contexto, debe entenderse que esta respuesta no entre a valorar los argumentos municipales expresados en la sugerencia; ya se supone que fueron motivados y aceptados en el curso de la tramitación del PGOU vigente.

6. LPPan irudikatuta dauden uholde-arriskuko eremuak mugatzeari buruzko informazioa gaur egun GeoEuskadin argitaratuta dagoen geruzatik (*URAren urak - Uholde-arriskua - Uholde-arriskua EAEn*) atera dira, eta arduraduna URA da.

Ibarzaharrako eremuari dagokionez, URAk uholde-arriskuko eremuei buruzko datu eguneraturik ez du bidali, nahiz eta iradokizunean aipatu. Dena den, etorkizunean GeoEuskadiren geruza eguneratzen bada, bertsio berria izango da indarrekoa LPPa betetzeko, 41.1 artikuluak xedatzen duen bezala.

6. La información sobre la delimitación de las áreas inundables representada en el PTP procede de la fuente representada en la capa actualmente publicada en GeoEuskadi *"Aguas URA –Inundabilidad – Inundabilidad de la CAPV"*, cuyo responsable es URA.

En relación con el ámbito de Ibarzaharra, no se han recibido, por parte de URA, los datos actualizados sobre las áreas de inundabilidad que se mencionan en la sugerencia. No obstante, en el caso de que en el futuro la capa de GeoEuskadi se actualice, la nueva versión pasará a ser la vigente a efectos del cumplimiento del PTP, tal y como establece el art. 41.1.

Arrazoi berarengatik, ez da bidezkoa Granada ibaiaren ertzak *"berroneratzeko beharra duten ibaiertz"* modura zonakatzea, hala ez baitaude "GeoEuskadiko *"Lurralde- eta hirigintza-plangintza - LPSa - Ibaiak eta errekak – ingurumen-osagaia"* geruzan eta, gainera, URAk (arloko organo eskudunak) ez du eguneratzerik bidali.

Por idéntico motivo se entiende que no procede zonificar los márgenes del río Granada como *"márgenes con necesidad de recuperación"*, ya que no se encuentran recogidos como tales por la capa de GeoEuskadi *"Planeamiento territorial y urbanístico – PTS – Ríos y arroyos – componente medioambiental"*, ni se ha recibido ninguna actualización al respecto por parte de URA, órgano competente en esta materia.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: RKHC-8JY1-PROI-OIN1
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus